

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zure ingurua aprobetxatuta

- ✓ Egizu **inkesta** bat familia, lagun eta lankideen artean. Inkestaren helburua: jendearen telebista-gustuak eta -ohiturak deskubritzea. Prestatu galdera sorta egokia eta ekin galdetzeari. Datu-mordoxka eta informazioa lortuta, eman ikaskideei ondorioen berri.
- ✓ Hona hemen telebistaren munduan girotutako nobela beltz bat: *Prime-time*, John Andueza Altunarena. Irakurtzen animatuko? [HABEren liburutegian](#), liburuaren inguruko fitxa aurkituko duzue; era berean, egileari egindako inkesta bat ere aurkituko duzue, bideoz grabatuta.



Bala eta Klemente erabat ezberdinak dira. Bata eguzkia, eta bestea itzala. Irrintzi Operazioan hutsegite galanta egin eta gero, Bala eta Klemente ostikoka bota dituzte Ertzaintzatik. Orain, halabeharrez, detektibe pribatu bihurtu dira.

Halako batean, euren bizimoduak goitik behera aldatuko dituen telefono deia jasoko dute. Algortan, Arri-gunagako labarretan, telebistako jauntxo baten gorpua aurkitu dute haitzetan txikituta.

Bere buruaz beste egin du? Ala norbaitek akabatu du? Egin apustu. Eguzkia ala itzala?

Internet eta bestelako hedabideak erabilia

- ✓ Sartu zaitez www.eitb.eus webguneko [nahieran](#) atalean. Hortxe dituzu emititutako saio guztiak alfabetikoki ordenatuta. Baietz saio interesgarriren bat deskubritu! Horrela bada, kontatu ikaskideei nolakoa den, zeri buruzkoa, zergatik gustatu zaizun...
- ✓ Tokian tokiko telebisten artean [Hamaika Telebista](#) eta [Goiena Telebista](#) erreferente bihurtu dira. Aukeratu bietako bat, sartu webgunean eta bildu telebista horren inguruko informazioa: nolakoa den, nola ikus daitekeen, zer gai jorratzen dituen... Behin informazioa bilduta, eman ikaskideei aztertu duzun telebistaren berri.